

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Euskara ikasteko dirulaguntzen deialdia. 2021-2022 ikasturtea

Udalbatza honek, 2022ko urtarrilaren 28an balio osoz egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea euskara ikasteko laguntzen deialdia eta hura arautuko duten oinarriak, 2021-2022 ikasturterako. Horri buruz onetsitako hirugarren erabakia betez, honen bidez, ALHAOn argitaratzen dira oinarriok, objektibitate, lehia eta publizitate printzipioak bermatzeko.

Gaubea, 2022ko abuztuaren 10a

Jarduneko Alkate-lehendakaria
ROBERTO PORRES SERNA

EUSKARA IKASTEKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK. 2021-2022 IKASTURTEA

1. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da euskara ikasteak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko dirulaguntzak emateko arauak ezartzea.

Deialdi honen bidez euskara ikastaro hauek lagunduko dira diruz:

– Euskaltegi homologatuetako euskara ikastaroak, 2021eko urriaren 1etik 2022ko ekainaren 30era (biak barne) egindakoak, bai ikastaro arruntak, bai barnetegietan egindakoak.

– Euskaltegi homologatuetako udako euskara ikastaro trinkoak, ekainean, uztailean, abuztuan edo irailean egindakoak, bai ikastaro arruntak, bai barnetegietan egindakoak.

Diruz lagunduko ez direnak:

Mota guztietako ikastaroetako joan-etorrien gastuak, mantenu gastuak eta ostatu gastuak.

2. Onuradunak

Deialdi honen onuradun izan daitezke Gaubean erroldatuta dauden pertsona fisikoak, ikastaroa eman den aldian erroldatuta egon direnak, eta, horrez gainera, deialdi honen bosgarren oinarrian zerrendatutako betekizunak betetzen dituztenak.

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

3. Aurrekontuko kreditua

Euskara ikasteko dirulaguntzetarako aurrekontu partida jasotzen du Gaubeako Udalaren aurrekontuak. Programa honen bidez deitutako laguntzen zenbatekoa 1.000 euro da, eta 335.226000 aurrekontu partidaren kontura finantzatuko da.

4. Laguntzak emateko araubidea

Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, eta, horretarako, eskabideak alderatu egingo dira, betiere Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean

adierazitako printzipio hauek bermatuta: publizitatea, lehia, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, eraginkortasuna eta efizientzia.

Urteko ikastaro edo maila bakarrerako emango da dirulaguntza, salbuespenak salbuespen (lan kontuak, gaixotasunak, ikastaroa berriz egin beharra gainditu ez delako, eta abar); halakoak dagokion batzordeak aztertuko ditu.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa izango da udal honek erakunde homologatuarekiko hitzarmenaren bidez eskainiko dituen ikastaroen zenbatekoaren ehuneko 50, kontuan hartu gabe zenbatekoaren zein gastu egiaztatzen den.

5. Dirulaguntzak emateko betekizunak

Deialdi honetako laguntzen onuradun izateko nahitaez bete behar dira betekizun hauek:

- a) Gaubeako udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa ematen den aldian.
- b) Euskara ikastaroa egitea deialdi honen lehenengo oinarrian adierazitako aldietan eta euskaltegi homologatu batean.
- c) Euskara eskolen % 80ra edo gehiago joan izana egiaztatzea (hori egiaztatzeko, dagokion euskaltegiko zuzendaritzak emandako ziurtagiria baino ez da onartuko).

Udalak berak antolatutako ikastaroetara joaten diren ikasleek ezin izango dute dirulaguntza hau eskatu, ikastaro horiek alde aurretik baitaude diruz lagunduta.

6. Eskaerak eta aurkezteko epea eta tokia

Eskaerak eredu ofizialaren arabera (I. eranskina) aurkeztu behar dira Gaubeako Udalaren Erregistroan (Jesús Guinea arkitektoa kalea 46), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Horretarako, oinarri hauekin batera doaz aurkeztu behar diren inprimakien ereduak, eta horiekin batera deialdiaren 7. oinarrian aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko da. Inprimaki horiek udal bulegoetan eta udalaren web orrian (www.valdegovia.eus) ere egongo dira jendearen eskura.

Eskaerak 2022ko irailaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira, egun hori barne.

Eskaera orrian edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsen bat badago edo agiri horiek osatu gabe badaude, hamar eguneko epea emango zaie interesdunei, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko. Epe horren ondoren akatsak zuzendu ez badira, eskaeran atzera egin dutela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

7. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Euskara ikasteko laguntza jasotzeko eskaera orria, (I. eranskina).
2. Egindako ordainketaren frogagiria.
3. Euskaltegiko zuzendaritzaren ziurtagiria, datu hauek jasotzen dituenak: ikaslearen datuak, egindako maila, asistentzia eta ikastaroaren hasiera eta amaiera egunak.
Ikastaroa barnetegiren batean eginez gero, euskaltegiaren ziurtagiria, gastuak banakatuta dituenak: irakaskuntzakoak alde batetik, eta mantenukoak eta ostatukoak bestetik.
4. NANaren fotokopia.
5. Zinpeko adierazpena, jasotzen duena eskuratutako dirulaguntzarekin eta eska daitezkeen beste batzuekin ez dagoela inolako gainfinantzaketarik (II. eranskina).

8. Eskakerak aztertzea, ebaztea eta organo eskuduna

Informazio batzordeak aztertuko ditu eskaerak, eta irizpena emango du. Irizpen hori izango da ebazpen proposamenaren oinarria.

Erakunde honen udalbatzak emango du behin betiko ebazpena.

Ebazpenean onuradunen zerrenda eta jaso beharreko zenbatekoak jasoko dira. Dirulaguntza ukatzen bada, ukatze horren arrazoiak emango dira.

9. Ebazteko epea

Prozedura ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Gehieneko epea igaro bada eta interesdunei ebazpenaren berri eman ez bazaie, eskaera administrazio isiltasunagatik gaitzetsi dela ulertuko da.

Ebazpenak administrazio bidea amaitzen du eta haren aurka interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko diote alkateari hilabeteko epean, ebazpena ematen denetik aurrera; bestela, zuzenean aurkeztu ahalko dute administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean. Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtso ere aurkeztea.

10. Arau hausteak eta zehapenak

Dirulaguntzen arloko arau hausteei eta zehapenei dagokienez, osorik aplikatuko dira Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak IV. tituluan jasoriko arauak eta lege horren arautegia onetsi zuen 887/2006 Errege Dekretuak IV. tituluan xedatutakoa.

11. Aplikatzekoa den araudia

Oinarri arautzaile hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, honako hauetan xedatutakoa aplikatuko da: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren arautegia onesten duena, eta Gaubeako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza.

I. eranskina

Euskara ikasteko dirulaguntza eskaera

Eskatzailearen datuak.

Izen-abizenak:

NANa:

Helbidea: Herria:

Telefonoa:

Banketxeko datuak

Banketxea/kutxa:

Sukurtsala:

Kontu zenbakia:

Titularra:

Adierazten dut

Euskara ikasteko Gaubeako Udalak ematen dituen laguntzen berri izan dut, eta ikastaro hau egin dut:

Euskaltegia:

Gainditutako maila/ikastaroa:

Matrikularako ordaindutako zenbatekoa:

Eskatzen dut

Euskara ikasteko laguntza

Gaubea,(e)koaren(a)

II. eranskina

Zinpeko adierazpena

Nik, jaunak/andreak (NAN zk.:; helbidea:), zinpean adierazte dut, ezen, kontuan izanda zenbateko dirulaguntza eskatu diodan Gaubeako Udalari eta zenbat gehiago jaso dezakedan beste edozein erakunde publiko edo pribatutatik, ez dudala jasoko inolako gainfinantzaketarik.

Eta hala jasota geratu dadin Gaubeako Udalean, zinpeko adierazpen hau egiten dut.

Gaubea,(e) koaren(a)